

BENIDORRERA GOAZ

*HAU DA SUERTEA:
BENIDORRERA GOAZ
TA NEU NAZ PARTEA!
("Edurra teilatuan)*

1

Benidorrera goaz
hainbeste euskaldun,
ondo pasatu nahirik,
Jaungoikoa lagun. Rau(bis)

2

Bizkaia, Gipuzkoa
baita Naparroa,
Euskaldun ta fededun
gauza arraroa.

3

Fedeak egin gaitu
gu danok senide,
Bizian Gora lagun
goaz bidez bide.

4

Bizibarritu nahirik
gorputz ta arima,
lehenago jakin eza
hauxe da lastima.

5

Horra zetara goazen
gu Benidorrera:
hobeto bizitzeko
pilak kargatzera.

6

Pilak kargatu eta
pixua deskarga,
patxadaz ibilteko
sekulako marka.

7

Geure lagun daukaguz
Jesus ta Maria,
eta Bizian Gora
gure zaindaria.

8

Anai-arreba gara
ez al da pozgarri?
Ibili gaitetzala
lagunduz alkarri.

9

Bakotxarentzat dogu
seguru aparta,
seguruena, kontuz
ibili behar da.

10

Dana ez da etorten
guztion erara,
baina pazientziaz
moldatuko gara.

11

Izan gaitezan nunahi
eleiza bizia,
lagun izango dogu
Jaunaren grazia.

12

Hamabost egun eder
pozik alkarrekin,
gorputz eta arimaz
guztioi on egin!

GABON JAIETAN KANTARI

A,a, a,

Hau da egun alaia,
poztu zaitez, anaia,
ospatu Gabon jaia
A,a,a ospatu Gabon jaia.

E,e,e

Maitasun, poz ta bake,
nok ez dau borondate?
Edegi leiho ta ate.
E,e,e, edegi leiho ta ate.

I, i,i

Jesus da jaiobarri,
nok ez deutso igarri?
Jesus, ondo etorri!
I,i,i, Jesus, ondo etorri.

O, o, o

Ume eder potxolo,
kuman dago lo ta lo;
emon mosu ta txalo.
O,o,o emon mosu ta talo.

U,u,u

Guk Jesus maite dogu,
saltzeko ez daukagu!
Gurean dau ostatu.
U,u,u gurean dau ostatu.

A,a,a

Egin dot eskaria:
Betor Gabon saria,
hau bai hau loteria!
A,a,a Hau bai hau loteria!

E,e,e

Hor lotería merke,
zeugandu nahi bazeunke,
maitasunaren truke.
E,e,e maitasunaren truke.

I,i,i

Hau erosten ez hasi,
dana da dohai grazi,
emonaz irabazi.
I,i,i emonaz irabazi.

O,o,o

Zeuk nahi izan ezkerro,
daukazuz egunero
Gabon ta Olentzero.
O,o,o Gabon ta Olentzero.

U,u,u

Zeure esku daukozu:
maitatu behar dozu
urkoa eta Josu.
U,u,u urkoa eta Josu

A-Martzel